

Mahomā



LH 4.MAILA

MAHOMA

Meka izeneko herri txiki batean jaio zen 570. urtean gutxi gorabehera. Mahomaren izen arabiarra Muhammad da, eta "gorespenez betea" esan nahi du.

EZ dugu oso ondo ezagutzen Mahomaren bizitza. EZ omen zuen aita ezagutu, Mahoma jaio aurretik hil baitzen, eta amarekin bizi izan zen sei urte bete zituen arte; orduan, ama ere hil eta **umezurtz** geratu zen. Osaba Abu Talibek jaso zuen umezurtza, eta elkarrekin hazi ziren bi lehengusuak, Mahoma eta Ali, Abu Taliben semea. Osaba **merkatari** aberatsa zen, eta haren babesean gizon egin ziren bi mutikoak.

Mahomak osaba Abu Talibi merkatari-lanetan lagundu zion oso gaztetatik, eta batera eta bestera ibili ziren karabanekin.

Hogeita bost urte zituela, Jadiya izeneko emakume **alargun** aberats batekin ezkondu zen Mahoma. Zazpi seme-alaba izan zituen: hiru seme, gazterik hilak, eta lau alaba. Horietako bat, Fatima, Alirekin ezkondu zen.

Jadiya hil zenean, beste lau emazte izan zituen Mahomak, horien artean Aixa, maitatuena, dirudienez.

Mahoma sarri joaten zen mendira, lasai egotera, bere pentsamenduak hausnartzera, eta errezatzerara. Mekatik hurbil dagoen Hira mendian zegoela, Gabriel **goiaingerua** agertu omen zitzaion, eta Ala Jainkoaren hitzak azaldu zizkion: Ala zela jainko bakarra, haren **iragarlea** izan behar zuela, eta haren hitzak zabaldu behar zituela. Une horretatik aurrera, Mahoma Alaren igarlea izan zen.

Mahoma Alaren hitza zabaltzen hasi zen. Mendian entzundako mezua, hasieran familiakoei eta inguruko lagunei adierazi zien, eta gero Mekako kale eta azoketan, denek jakin zezaten Gabriel goiaingeruak esandakoa. Gutxi gorabehera honako hau:

*Ala da jainko bakarra, eta Mahoma haren iragarlea, aurreko garaietan Abraham, Moises eta Jesus izan ziren bezala. Jainko **ahalguztiduna** da Ala, eta Haren esanetara jarri beharra dago. Hark sortua da mundu guztia, eta Hura bakarrik gurtu behar dugu.*

619. urtean Jadiya eta Abu Talib hil ziren, eta Mahomak jasotzen zuen laguntza murriztu egin zen. Mekako merkatariak eta aberatsek ez zuten onartzen Mahomaren erlijioa, eta egoera gero eta larriago bihurtu zen. Azkenean, alde egin behar izan zuen handik, bizitza arriskuan baitzuen.

Mahomak 622. urtean egin zuen ihes Mekatik beste hiri batera. Garai hartan, Iatrib izena zuen hiri hark, baina geroztik Medina an-Nabi ("igarlearen hiria"), edo Medina soil-soilik esaten zaio. Ihesaldi hari *hejira* deitzen zaio, eta islamiarrek data hori dute egutegiko abiapuntu (guretzat 622. urtea dena, 1. urtea da haientzat).

Medinan erlijio berria zabaltzen saiatu zen Mahoma. Nahiz eta hasieran talde txikia bildu, denborarekin handiagotzen joan zen, eta indartsu sentitu zen. Armada osatu, eta erlijio berria onartzen ez zutenen aurka gerra santua, *jihad*-a, antolatu zuen. Hainbat garaipenen ondoren, Meka hirira itzuli zen. Kaaba deituriko tenplu sakratuan sartu, eta hango estatuak, irudiak, marrazkiak... hautsi zituen, erdian zegoen harri beltz bat izan ezik, hura Abrahamek ekarritakoa zela uste baitzuen, tenplua sortutako garaian. Geroztik, islamiarrek Mekako harri beltzari begira egiten dituzte errezoak.

Mekako istilu haiek 630. urtean izan ziren, eta islamaren lehenengo garaipen handia izan zen. Dena dela, handik bi urtera hil egin zen Mahoma.

Mahomak ez zekien irakurtzen eta idazten, baina adiskideek liburu batean bildu zituzten hark esandakoak. Liburu horrek *Koran* du izena eta islamiarren liburu sakratua da. Islamiarren ustetan, Gabriel goiaingeruak Mahomari esandakoa agertzen da, besteak beste.

Mahoma **erlijio** berri baten sortzailea izan zen, eta haren hitzek eta ekintzek betiko aldatu zuten gure munduaren historia.

DATA: _____

IZENA: _____

ARIKETAK

IRAKURRI AURRETIK

❖ Ezaguna egiten zaizu Mahoma? Badakizu nor den?.....

.....

.....

❖ Testua ondo uler dezazun, bila itzazu hitz hauen esanahiak hiztegian:

❖ Gorespen:.....

.....

❖ Umezurtz:.....

.....

❖ Merkatari:.....

.....

❖ Alargun:.....

.....

❖ Goiangeru:.....

.....

❖ Iragarle:.....

.....

❖ Ahalguztidun:

.....

❖ Erlijio:.....


.....

IRAKURRI ONDOREN

❖ Adieraz ezazu ondorengo esaldiak egia (E) edo gezurra (G) diren:

	E	G
1. Mahoma Meka herrian duela 570 urte gutxi gorabehera jaio zen.		
2. Mahomak ez zuen aita ezagutu, ezta ama ere.		
3. Hogeita post urte zituela Jadiyaharekin ezkondu zen, eta zazpi seme-alaba izan zituen.		
4. Mahomak, guztira, lau emazte izan zituen, azkenekoa Aixa.		
5. Hira mendian zegoela, Gabriel goiaingerua agertu zitzaion eta zera esan omen zion: Aia da jainko bakarra, eta zu, Mahoma, haren iragarlea.		
6. Mekako merkatariak eta aberatsek hasieratik onartu zuten Mahomaren erlijioa.		
7. 622. urtean Medina herrira ihes egin zuen Mahomak; horixe da islamiarrentzat "1 urtea".		
8. Mahoma Meka hirira itzuli zenean Kaaba tenpluko estatuak, irudiak, marrazkiak... eta erdian zegoen harri beltza hautsi zituen.		
9. Mahoma 632. urtean hil zen.		
10. Haren lagunek Mahomak esandakoarekin liburu bat osatu zuten: korana, islamiarren liburu sakratua.		

❖ Osatu ondorengo taula zakutik behar diren hitzak aukeratu:



ISLAMA	
Jainkoa	
Iragarlea	
Irudiak debekatzen ditu	
Otoitz-lekua	
Liburu sakratua	

EKINTZA OSAGARRIAK

❖ Bilatu beste erlijio bati buruzko informazioa. Hona hemen baliagarriak izan dakizkizukeen galderak.

- Zein da erlijio horren jainkoa?
- Eta haren iragarlea?
- Non egiten dute otoitz?
- Liburu sakraturik badute?
- Besterik?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

IRUDIA:

- <https://en.wikipedia.org>

BIBLIOGRAFIA:

- ZENBAITEN ARTEAN: *LH 4 Txanela Irakurgaiak*, Elkar, Donostia, 2003.

EGILEA: LEIRE ILINCHETA

2015